

## *Odei Arregi* Inoiz saiatu al zara txori bati musu ematen?

**T**xirrin hotsarekin batera eskolako umeen jolas zaratek bete dute eliza atzeko parkea, zoko guztietatik datoz barre eta kantua. Parkeko banku batean daude Elisa eta Jon, amak pres-tatu dien ogitartekoa jaten hitzik esan gabe, usoen arnas hotsa besterik ez da sumatzen. «Inoiz saiatu al zara txori bati muxu ematen?» galdetu du Elisak begiak borobil, usoez ogitartekoetatik erortzen diren ogi apurrak jaten dituzten bitartean. Jon txokolatzeko bokadiloari begira gelditu da.

«Inoiz saiatu al zara txori bati muxu ematen?» errepikatu du Elisak, ahotsa urratuz negar egitera doanaren antzera. Jonek ogitarteko zatia irentsi du. Ez dio Elisari begiratu nahi, honek bere begietan irakurtzen baitaki. Baina Elisak ez dio begirik kentzen, eta Jonek ezin du begirada horren zitzada luzaroan jasan.

«Behin kardantxori bati Humphrey izena jarri nion» bota du bat-batean barru-barrutik. Elisak begiak zabaldu ditu bere lagunaren konfesioa entzuteko irrikaz. Momentu batez arnas hartzeari utzi diote biek. «Behin kardantxoria bati Humphrey izena jarri nion» jarraitu du poliki Jonek, «eta liburuen izkinetan idatzi nuen bere izena urtebete inguruz». Esandakoarekin konforme, normala baino bi aldiz handiagoa den hozkada egin dio bokadiloari, eta ezer esan izan ez balu bezala jarraitu du jaten.

Elisak besotik heldu eta begietara begiratzuz galdetu dio: «Inoiz eman al zenion muxurik Humphreyri?». Joni arnasa gelditu zaio eta masailak gorritu, mugimendu hotzez askatu da eta korrika alde egin nahi du, baina itsatsita gelditu da pitonisa izena asmatzen dizunean bezala. Elisak ogitartekoa erditik ebaki eta usoei bota die. Magalean daukan kartoizko kutxa bularraren kontra estutu du. Elisa eta Jon anai-arrebak dira, Jon da zaharrena eta Elisa etxeko txikia. Elisak ongi ezagutzen zuen Humphrey, orain dela urte eta erdi inguru anaiari oparitu zioten kardantxoria. Egun hartatik bere nebaren begiek distira berezia izan zu-

ten, aurreko astean kardantxoriarekin batera desagertu zen distira bera.

Elisari gehiegi pisatzen dio bihotzean darman sekretuak, usoez ogitartekoen apurrei moka jarraitzen duten bitartean Elisaren gogoak aste-bete egin du atzera, igande goizera hain justu. Gogoratu du goiz eguzkitsua zela eta etxeko guztiak lo zeuden bitartean, bera kardantxoriaren kaiola parean zegoela. Gogoratu du txoriaren mugimenduei adi begiratzen ziela inoiz baino gertuagotik, eta bere arnasak txoriaren lumak aztoratzen zituela emeki. Gogoan dauka urduri zegoela, aspalditik zerabilkiela buruan egun hura. Armairuko soinekorik ederrena zeraman jantzita, lehengusuaren ezkontzara eramane zuena, eta han zegoen Humphreyri so. Gogoan du, baita ere, nola ireki zuen kaiola. Eta ez du ahaztu Humphreyren taktua esku artean, ez eta haren bihotzñoaren taupaden bizkortasuna ere. Gogoratzen du txoriari begietara begiratu ziola, irribarretsu zera esaten ziola: «Badakit Jonena zarela eta berak ere maite zaituela, baina nik gehiago maite zaitut». Eta oroitzen du ezpainak borobilduta eta begiak itxita Humphreyri eman zion muxu luzea, eta nola xuxurlatu zion «maite zaitut» emeki, bere ustez txoriak belarriak zituen lekura. Eta gogoan dauka Humphreyk ez ziola erantzun, haserretu egin zela, eta gogor estutu zuela txoria bere bularraren kontra, kardantxiloaren bihotz taupadak esku artean desagertu zitzaizkion arte. Eta korrika gelan ezkutatu zela eta Humphrey zapata-kutxa barruan ohe azpian gorde zuela. Oroitzen du soinekoa erantzita biluzik sartu zela izara azpian, baina ez zuela lorik egin. Eta hantxe gelditu zela gogoratzen du, ohe barruan kuzkurturik, azpian Humphreyren hilotzak gero eta hotzago zetzan bitartean. Eta ez du ahaztu Jonek txoriaren kaiola hutsa deskubritu zuenean, anaiaren bihotza erdibitzen entzun zuela, begietako distirak eskapu egin ziola eta anaiak zortzi



NOR DA

### **Odei Arregi Izagirre.**

Azkoitian jaioa 1984an. Artearen Historian lizentziatua, kale antzerkian eta zirkuan egiten du lan Bapatean taldearekin.

Marraskia: **Kristina Fernandez**

urteko pertsona abandonatuaren gorpuzkera hartu zuela. Eta oraindik gogora etortzen zaio bere anaiaren irudia liburuen izkinetako Humphrey guztiak ezabatuz, amorruren trazuaz.

Orain han daude hirurak parkeko bankuan: Elisa, Jon, eta Humphrey kartoizko kutxa barruan. Elisak Joni begiratzen dio zeharka. «Tori» esan dio halako batean, kutxa Jonen begien parean jarriz. «Tori, nik ez dut gehiago maite» esan du Elisak, eta beste ezer esan beharrik ez dagoela iruditu zaio, horrekin dena esana dela, eta hemendik aurrerakoa garrantzirik gabeko jarduna besterik ez dela.

Jonek kutxari begiratzen dio arrebari ezer esan gabe. Humphrey jartzen du letra larriz kutxaren gainean. Berehala konturatu da kartoizko kutxak ez daukala zulotxorik, eta oroitu du, zer gertatu zitzaion kilkerari zulorik gabeko pospolo-kaxan sartu zuenean eta nola esan zion aitak: «Zulorik gabeko kutxak animalientzat, arraintzat urik gabeko arrainontziak bezalakoak dituk. Hil-kutxak». Eta ordudanik Jonek zulotxoak egiten dizkie kartoizko kaxei, bertan zomorro, sugandila edo bestelako animaliak sartu aurretik. Baina arrebak eman dion kutxak ez dauka arnasbiderik, eta badaki

horrek zer esan nahi duen; hilkutxa bat daukala esku artean. Ez daki zer esan, ezta zer sentitu ere, eta halaxe gelditu da ezer egin gabe, Elisaren ondoan, hilkutxa magalean.

Elisa berriz gustura dago; anaiari itzuli dio anaiarena, eta ongi jokatu ondoren, heroi txikien animoa dauka. Alai altxa da bankutik, eta alde egin aurretik anaiari eskua sorbaldan jarri, eta esan dio: «Orain errazago emango diozu muxu». Joan egin da gero, bost urteko neskatilek egiten duten moduan, erdi oinez erdi saltoka, ume kantua ezpain artean.